

Eraikuntzaren kostuak % 0,3 jaitsi dira Euskal AEn 2023ko urrian


Urtetik urtera, 2023ko urria 2022ko urriarekin alderatuta, prezioen igoera % 3,6ra iritsi da

Eustaten datuen arabera, eraikuntzaren kostuen indizea % 0,3 jaitsi da Euskal AEn 2023ko urrian, aurreko hilabetearekin alderatuta. 2022ko hilabete berarekin alderatuta, kostuak % 3,6 igo dira.

Eraikingintzako kostuak % 0,4 jaitsi dira, eta Obra Zibilekoek, berriz, ez dute aldaketarik izan. 2022ko urriarekin alderatuta, prezioak % 3,8 igo dira Eraikingintzan, eta % 2,9 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arte aldakuntza-tasak sektoreka

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilabetearekin (2023ko irailarekin) alderatuta, **lehengaien** kostuak % 0,4 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostuek, berriz, ez dute aldaketarik izan. Urtetik urtera, lehengaien kostua % 4,0 igo da, eta eskulanaren kostua, berriz, % 2,1.

Lehengaien kostua % 0,5 jaitsi da hiletik hilera Eraikuntzaren sektorean, eta ez du aldaketarik izan Obra Zibilean. Urtetik urterako bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 4,3 igo dira, eta Obra Zibileko kostuak, berriz, % 3,1.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Urria 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	126,1	-0,3	3,6
Eraikinak	125,4	-0,4	3,8
Obra zibila	129,2	0,0	2,9
Lehengaiak	128,2	-0,4	4,0
Eraikinak	127,3	-0,5	4,3
Obra zibila	132,2	0,0	3,1
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioek honako azpisektore hauetan izan dituzte igoerarik handienak 2023ko urrian, 2022ko urriarekin alderatuta: *Ez-metalezko mineralak* (% 11,6), *Kautxua eta plastikoa* (% 10,8) eta *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 6,8). Bestetik, sektoreko lehengaiak diren produktuak produzitzen dituzten azpisektore nagusi hauetan jaitsi dira prezioak: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 29,2ko jaitsiera), *Petrolioaren fintzea* (% 15,5eko jaitsiera) eta *Industria kimikoa* (% 7,4ko jaitsiera).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Urria 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	11,6
Zuraren eta kortxoaren industria	6,8
Petrolio fintzea	-15,5
Industria kimikoa	-7,4
Kaubuxa eta plastikoa	10,8
Produktu mineral ez-metalezkoak	6,7
Metalgintza	-5,0
Metalezko artikulua	1,1
Material elektronikoa	2,7
Material elektrikoa	3,4
Makineriaren fabrikazioa	4,9
Altzarigintza	6,2
Energia elektrikoa eta gasa	-29,2

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Azaroaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62